

Ongizate Emozionala

FP Euskadi LH



KOMIKIA: OIHU EGIN

Irakaslearentzako materiala

1. HELBURUAK

HELBURU OROKORRA:

- Eskola-eremuan suizidioa prebenitzea.

HELBURU ZEHATZAK :

- Ikasleak osasun mentala zaintzearen garrantziaz sentsibilizatzea
- Emozionalki ondo aurkitzen ez direnean, nola jokatu jakitea
- Egoera txarrean dagoen kideren bat izanez gero, nola jokatu jakitea.

2. IRAUPENA

60 minutu

3. JARDUERA

0'- 10':

Jarduerarekin hasi aurretik, ikasleei azalduko diegu suizidioari buruz hitz egingo dugula. Gogoraziko diegu gai horrek errespetu osoa eskatzen duela eta haien inplikazioa eskatuko dugu. Honen helburua, ikasleak seguru sentiaraztea da, aurreiritzi edota iseken beldurrik gabe.

Saioan errespetatu beharreko arauak beraiek zehaztea eskatuko diegu (Adb.: ez barre egitea, txandak errespetatzea, balio-iritzirik ez egitea...).



Hasteko, suizidioaren inguruko gure AURREKO EZAGUTZAK aztertuko ditugu: Ikasle bakoitzari hiru post-it banatu ondoren, isilean, bakoitzak suizidioari buruz entzun dituen 3 esaldi idatziko ditu.

10' - 20':

Komikia banatuko dugu eta ikasle bakoitzak bakarka irakurriko du.

20' - 45':

Ikasleei honako galdera hauek banatuko dizkiegu:

1. Nola jokutzen dute Oihanekin harremana duten pertsonek?

Zer landuko dugu galdera honekin?: ARRISKU FAKTOREAK (Ikus protokoloa)

2. Oihanek laguntza eskatu du? Nola?

Zer landuko dugu galdera honekin?: ALARMA SEINALEAK (ikus protokoloa)

3. Oihan sentitzen duena adierazteko erraza dela uste duzu? Zergatik?

Zer landuko dugu galdera honekin?: BABES FAKTOREAK (Ikus protokoloa)

4. Zer egingo zenuke Oihanen laguna bazina?

Zer landuko dugu galdera honekin?:BABES FAKTOREAK (Ikus protokoloa)

5. Eta Oihan bazina?

Zer landuko dugu galdera honekin?: BABES FAKTOREAK (Ikus protokoloa)



Galderak astiro irakurtzen utziko diegu, bi minutuz, banakako gogoetak egiteko denbora emanaz.

Ondoren, talde handian komentatuko ditugu erantzunak (ez du zertan banan-bana joan behar, garrantzitsua baita taldeak adierazten dituen behar eta kezkei erantzutea)

Taldeko hausnarketa egiten denean, dinamizatzaileak, suizidioarekin lotutako MITO ohikoenak aipatuko ditu (Ikus protokoloa).

45' - 55':

Saioa ikuspegi proaktibo eta positiboarekin amaitzeko asmoarekin, azken galderak egingo dizkiegu:

1. Zure ustez, nola prebenitu dezakegu suizidioa?
2. Eta nik, zer egin dezaket laguntzeko?
3. Eta ni, Oihan banintz zer egingo nuke?

Talde handian komentatu ondoren, (denbora ematen badu) beraien ideiak kartulinaran jaso ditzakete errotuladoreekin.

55'-60':

Saioa amaitzeko, leihoetan jarritako post-it horiek ikusiko ditugu berriro.

Aldez aurreko ezagutzetan aldaketak egitera gonbidatuko ditugu ikasleak: "saio honen ondoren, aldatuko al zenuke post-it-ean jarri duzun esaldirik?"

Nahi duenak esaldia alda dezake, suizidioari buruzko mito eta aurreiritziak landuz eta barneratuz.



4. MATERIALA

- 3 Post-it ikasle bakoitzarentzat
- Komikiaren kopia bat ikasle bakoitzarentzat
- Ikasle bakoitzarentzako galderen orri bat
- Kartoi meheak
- Kolore-errotuladoreak.

